

Urnietako KEk zaletuen beharra du eskubaloi partida irabazteko

Urnietako Balerdi harategia senior mailako taldeak igoerako partida jokatu du larunbatean.

Arratsaldeko 19:00etan hasiko da Urnietako kiroldegian, eta zer esanik ez garrantzia handikoa izango dela. Play-offean oso gutxitan huts egin daiteke, eta horregatik etxeko partidei eustea beharrezkoa da. Oraingoan, gainera, lehen postuan doan Ordizia dator etxera.



Sestaon eta Erreterian jokatu ostean Ordizia aurkari zaila hartuko dute etxean.

Larunbat honetan arratsaldeko 19:00etan Ordizia taldea hartuko dute Urnietako kiroldegian

SAILKAPENA:

- | | |
|--------------|-----|
| 1. Ordizia | 3/0 |
| 2. Urnietako | 2/1 |
| 3. Ereintza | 2/1 |
| 4. Egia | 1/2 |

PLAY-OFFA:

Urnietako 23-21 Egia
Sestao 25-24 Urnietako
Ereintza 27-29 Urnietako

Jabekuntza eskola martxan



Emakumeen boteretzeari sustatzeko ekimen sorta aurkeztu du Andoingo Udaleko Berdintasun sailak.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]

Erraustegia salatzen bilkurak



Erraustegiaren eraikuntza lanen hasiera dela eta, egitasmoaren aurkako elkarretaratzeko zaratzak egin zituzten astelehen iluntzean.

[ANDOAIN, URNIETA]

Artolazabal: "ETAk herriari barkamena eskatu behar dio"



Joan zen igande eguerdian ETAk duela hamazazpi urte **Jose Luis Lopez de Lacalle** hil zuela gogoan izan zuten, haren izena daraman parkean. **Mari Paz Artolazabal** alarguna hunkituta agertu zen eta, alaba ondoan zuela, iazko hausnarketa berari eutsi zion:

"Nik ez dut inork niri barkamena eskatzea nahi. Baina uste dut ETAk herriari barkamena eskatu behar diola, bereziki hainbeste min eragin dion jendeari". Hitzordura hainbat politikari eta ETArekin biktima hurbildu zen. Artolazabalen aurretik **Maidar**

Lainez Andoingo sozialisten buruak hitza hartu zuen. Egia, justizia, erreparazioa eta oroimena aldarrikatzearekin batera, Lopez de Lacalle "bere ideientatik, eta askatasunez adierazteagatik" erail zutela adierazi zuen.

[ANDOAIN, 4. ORRIALDEA]

111AKADEMIA: REN SARIA 2016

Idazle saritua:
Kirmen Uribe




Maiatzaren 11n, ostegunarekin arratsaldeko 19:30etan

Elkarrekin esnatzeko ordua eleberriagatik



Andoingo Bastero Kulgurgunean.
EKITALDI IREKIA.



"Ikuskizun dinamikoa, alai eta dibertigarria izango da"

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek *Tipi-tapa, Korrika* ikuskizun berriena aurkeztuko dute Urnietan, datorren maiatzaren 26an Egape ikastolako jolastoki estalian arratsaldeko 17:30ean hasita. Horra, Goienako lankideei **Aiora Zulaika Pirritx** pailazoak ikuskizunari buruz eskaini zien elkarrizketa:



Korrikaren inguruan da ikuskizun berria; zer dela eta?

Aiora Zulaika. Korrikaren 20. edizioa dela eta, Korrikarekin eta AEKrekin zorra sentitzen genuen. Korrikako azken kilometroan korrika egin genuen, herrian tokian tokiko euskararen gaineko eragileekin batera, eta hori oso polita izan zen. Kanpotik ikusten duen batentzat arraroa edo absurdoa izan daiteke Korrika. Lekuko batean mezu bat sartu, eta milaka kilometro egitea gau eta egun ideia eroa bada, baina gure jarduna, pailazogintzatik, bizitza ere eroa da. Hala ere, ideia ero horiei esker gara garena, eta, euskarak aurrera egingo badu, berezitasunetik munduari bere kolorea ematen diola da.

Protagonista berriak izango al dituzue ikuskizunean?

A.Z. Euskal Herria zeharkatzen du Korrikak, eta Zeledonen lurrarekiko eta hizkuntzarekiko maitasuna, Marijaiaren umorea, sorginen ja-kinduria, Patakonek eta Ezkila kapitainaren elkertasuna... bilduko ditugu, euskarak bere baitan hori guztia biltzen baitu.

Aurreratu al dezakezu zerbait?

A.Z. Pupuk eta Lorek amari galdetzen diotenean, zer da euskara? Pirritxek hitz politekin erantzungo die: "Euskara dela gure arima taza, munduari gure doinua ematen diogula euskararekin, euskara dela gure xirula-mirula, euskara dela gure neurria egindako soinekoa...". Euskara gauza asko dira, hitz politak nik esan arren, Miren Amurizak ere asko lagundu digu. Ikuskizun dinamiko, alai eta dibertigarria izango da.

Diskoa ere atera duzue, ezta?

A.Z. Korrika Txikiaren kanta egin genuen bere garaian, eta, oraingoan, Korrikaren eta euskararen inguruko eta Imanol Urbietaren kanta bilduma prestatu dugu. Urbietak euskara eta euskal haurrarenkin militantea izan da, eta elkarrekin lotura daukaten bi disko atera ditugu.

SARRERAK SALGAI

Urnietan Xauxar eta San Juan plazako Bikain kafetegian. Andoainen Ernaitzan eta Aiurrin.

Erraustegiaren eraikuntza lanen hasieraren aurka



Astelehen arratsaldean hitzordu zaratsua antolatu zuten San Juan plazan.

Gipuzkoako herri askotan bezala, Urnietan ere hainbat herrikide erraustegia eraikitzeke lanen hasieraren aurka bildu ziren. Bilkura zaratsua izan ziren. Mobiliza-

zio berrietan parte hartzeko dei egin zuten, besteak beste, hilaren 25ean egingo duten kotxe karabanen eta Zubietan hilaren 27an antolatuko duten egunean.

Salesiar ikastetxeko DBH 3. mailako ikasleen lanak

Zientzia azokan sarituak

Elhuyarrek joan zen maiatzaren 6an Bilboko Plaza Barrian antolatu zuen Zientzia Azokan, Salesiar ikastetxeko DBH3 mailako ikasleek landutako bi egitasmo saritu zituen. Saritutako proiektu batean, ezindua den neska gazte bati laguntzeko aplikazioa aurkeztu zuten. Eskuak erabili gabe telefono deiak hartu eta egiteko sistema bat da ikasleek landu zutena. Bestean, berriz, eskuartearen egunero izaten ditugun elikagaien inguruko ikerketa da. Ikerlari gazte hauek erosketa egiterakoan lagungarri izango zaigun informazio iturri bat jarri zuten funtzionamenduan.



Ikasturtearen bigarren eba-luaketan landu dituzte egitasmo hauek, Fisika eta Kimika eta Teknologiako arloen orduak eta edukiak aprobetxatuz.

Ikasleen sormenetik dozena bat ideia atera dira, sarituz gain, Bullying-a jasaten duten pertsonen laguntzeko aplikazioa, pertsona itsuei kirola egiten hasteko tresna...

Larunbat honetan txikiak Muliskora, helduenak Onddira

Zanpatuz Ttiki eguna

Familia giroan mendian ibiltzeko txangoa antolatu du Zanpatuz mendi elkarteak, larunbat honetarako. **Muliskora** abiatuko dira txikiak, eta **Onddira** handiak. Goizeko 09.30ean Besa-

bin agertzeko deia luzatu dute. Txangoa bukatuta, hamaiketako egingo dute. Eguraldi onarekin Muliskon bertan, eta eguraldia txarra balitz, Xoxokako ikastolan.



Larunbat honetan, txikiak mendira abiatzekoak dira.

Buruntzaldeko hainbat herrietako gazteei zuzenduriko ekimena

Bizikidetzaz jarduteko gazte egonaldia antolatu nahi dute

Urnietan, Hernani, Astigarraga eta Lasarte-Oriako 24 gazte elkarte nahi dituzte maiatzaren 19tik 21era bitarte gatazkaren gainean hausnartu, hitz egin eta lekukotasunak biltzeko. Ekintzak Hernaniko kultur etxean gauzatuko dira, baina larunbat gauean Astigarragako Santiagomendi aterpetxean egingo dute lo. Parte hartzaile-

ek janaria eta lotarako lekua doan izango dituzte.

18-23 URTEKOEI ZUZENDUA

Aipaturiko 4 herri horietako bakoitzetik 6 pertsona hartuko dute parte. Parte hartzaileek 18-23 urte bitartean izan behar dituzte. Sustatzaileek parte hartzaileen artean ideologia eta pentsamendu desber-

dina duten gazteak animatu nahiko lituzkete, ekarpen zabalagoak jasotze aldera. Genero berdintasunari ere kontutan hartzea nahiko lukete.

Interesa dutenek gotzone @ubiqa.com helbidera idatzi behar dute izen abizenak eta jaiotako urtea adieraziz, eta kontakturako telefono zenbakia edo emaila adieraziz.

Onda Vasca irratan, ostegun honetan goizeko 11:00tan hasita

Irratsaioa Urnietatik zuzenean

Onda Vasca irratsaioa egingo du ostegun honetan, Urnietako Lekaio kultur etxetik zuzenean. Goizeko 11:00tatik 13:00etara

hizlari arituko dira Mikel Pagola Urnietako alkatea eta Udal zinegotziak, Edu Muruamendiaraz, Eskubaloi talde nagusiko jokala-

ri eta teknikariak, On Bizi merkatarien elkarteko kideak eta Elixabete Etchezarreta Altzibar Berri landetxeko arduraduna.



7 EURO. AIURRIN SALGAI

Purritx, Porrotx eta Marimotots



URNIETA

MAIATZAK
26
OSTIRALA

17:30

EGAPE IKASTOLAKO
JOLASTOKI ESTALIA

Aiurr:

SARRERAK DAGOENeko SALGAI: URNIETA XAUXAR, BIKAIN KAFETEGIA | ANDOAIN ERNAITZA, AIURRI

Trianaren ospakizuna Nafarroa plazan



Trianako kideak Nafarroa plazan, larunbat eguerdian.

Lasarte-Oria, Errenteria edota Irun herrietatik etorritako folklore taldeak izan ziren Andoaingo Triana elkartearen ospakizuneko gonbida-

tuak. Goizez eta arratsaldez saioak eskaini zituzten Nafarroa plazan. DJ baten saioarekin eman zioten amaiera egun osoko ospakizunari.



Folklore ezberdinei tartea eskaintzen diete urteroko jaialdian.



Egun osoko ospakizuna egin zuten elkartearen inguruan.

Erraustegiaren aurkako elkarretaratze zaratatsua



Elkarretaratzea egin zuten Juanita Alkain plazan.

Maiatzaren 8an hainbat herritar elkartu ziren Juanita Alkain plazan, Zubietako

erraustegia eraikitzeko lanen hasieraren aurka agertzeko. Ekitaldi zaratatsua izan zen.

2000ko maiatzaren 7an hil zuen ETAk, etxeko atarian

Jose Luis Lopez de Lacalle gogoan hartu zuten



Mari Paz Artolazabal Aitziber alabaren ondoan, eta haiengandik oso gertu Euskadiko eta Andoaingo sozialisten buruzagiak.

2000ko maiatzaren 7ko hartan bezalaxe, aurtengoak ere igandarekin bat egiten zuen. Eguerdiko hamabiak baino lehen, Jose Luis Lopez de Lacalleren senitarteko eta lagun ugari haren izena daraman parkean bilduta zeuden. Tartean, alderdi sozialistako hainbat buruzagi eta kide, Lacalleren hainbat lagun, herritar zenbait eta hedabideetako kazetari ugari.

Ekitaldian Artolazabalek hitza hartu zuen, Maider Lainezen hizketaldia eta gero. Urduri zegoela aitortu zuen Mari Paz Artolazabalek, eta bere adierazpenean bilobak izan zituen bereziki gogoan: "Etorri zaretzen guztioi eskerrak eman nahi dizkizuet, nire seme-alaben eta biloben partetik. Hamar egun dituen beste biloba txikia daukagu eta aurten ezin izan dute

"Nik ez dut inork niri barkamena eskatzea nahi. Baina uste dut ETAk herriari barkamena eskatu behar diola, bereziki hainbestemin eragin dion jendeari"

etorri. Alain, Amaia, Irene eta Nora hurrengo urteetan etorriko dira". Hunkitu egin zen, eta hitz egitea kosta egiten zitzaien. "Ezin izan dute bere aitona Jose Luis ezagutu. Argazki bidez ezagutzen dute. Zerutik ikusi beharko dituzte, lurrean ezingo dituzte ezagutu".

Hizketaldia amaitu aurretik, iazko hausnarketa berari eutsi zion: "Nik ez dut inork niri barkamena eskatzea nahi. Baina uste dut ETAk herriari barkamena eskatu behar diola,

bereziki hainbeste min eragin dion jendeari".

LAINEZEN ADIERAZPENA

Andoaingo sozialisten buruak hitza hartu zuen ekitaldiaren hasieran: "Bere ideientatik, eta askatasunez adierazteagatik erail zuten Jose Luis. ETako terroristek duela bost urte eta erdi su-eten iraunkorra deitu zuten. Gehiago espero genuen, armak entregatzea eta desagertu egingo zirela iragartzea. Duela gutxi armak entregatu dituztela adierazi zuten eta, tira, batzuk entregatu zituzten. Batzuentzat ospakizuna zirudien, guk ez dugu horrela ikusten. Ez diogu ezer zor ETari. ETak, aldiz, asko zor digu guri, euskal gizarteari eta espainiar gizarte osoari. Zer esanik ez erail zituzten 800 pertsoneri eta euren familiei".

Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimena Andoainera dator

Aurrekontu parte hartzaileak

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2018rako aurrekontu irekiak ekimena aurkeztu du, eta Urnietan lehen aurkezpena egin ondoren Andoainera etorriko dira. Egunean zehar informazioa zabaltzeko eta ekarpenak jasotzeko karpa ipiniko dute Goikoplazan, datorren astelehenean.

Maiatzak 15, astelehena.
10:00–19:00. Goikoplaza.
Info: gipuzkoa.eus/partaidetza



Urnietan San Juan plazan karpa ipini zuten hilaren 2an. Datorren astelehenean Goikoplazan ipiniko dute, egun osoan zehar.

Ikastaro ezberdinen aurkezpen ekitaldia udaletxean

Jabekuntza eskolaren deialdi berria

Sandra Barrenetxea berdintasun teknikariak, **Esti Mujika** Andoingo Udaleko berdintasun sailko zinegotzia alboan zuela, lehen prentsaurrekoa eskaini zuen jabekuntza eskolaren eskaintza berria iragartzeko.

Esti Mujikak adierazi duenez, "Udalak beharrezkoa ikusten du emakumeen parte hartze soziala eta politikoa sustatzea, ahalduz prozesuen bitartez. Alegia, emakumeok geure izaeraren autokontzientzia hartzea, autoestimua lantzea, gure gaitasun propioak ezagutzea eta emakumeei dagokigun espazio publikoa berreskuratzea".

Testuinguru horretan Jabekuntza Eskola egitasmoaren erdigunean dago. Sandra Barrenetxeak proiektu horiei buruzko xehetasunak eskaini zituen: "Emakumea musikara gerturatzea eta espazio publiko ere okupatzea helburua duen Batukada Feminista da eskaintza horietako bat; astelehenero Gazte Lokalean entseguak egingo dituzte". Urigainen, bestalde, rap musika entzuteko eta bideoak ikusteko aukera ematen duen tailerra egiten aritu dira: "Neska gazteei bideratuta dago, kultur adierazpen ezberdinak jorratuz lanketa feminista egitea baita helburuetakoa".

ADIMEN EMOZIONALA

Bestetik, "Gure sentimenduak landuz, gu geu onartuz" izenburuko ikastaroa nabarmendu daiteke: "Adimen emozionala landu nahi da, eta bereziki emakume nagusiei begira antolatu da. Maiatzaren 16an hasiko da Urigain kultur etxean, eta bost saioz osaturikoa izango da".

KULTUR ANITZA DEN ELKARGUNEA

Aurreko asteko aurkezpen ekitaldian ere jatorri anitzeko emakumeen elkargune multikulturala sortzeko egitasmoa iragarri zuten: "Bilerak egingo



Esti Mujika zinegotzia eta Sandra Barrenetxea teknikaria.

Adimen emozionalari buruzko ikastaroa maiatzaren 16an hasiko da Urigain kultur etxean

ditugu emakume emigrante ezberdinekin, espazio propio bat sortzeko asmoz. Helburua emakume horien osasun fisikoa eta emozionala hobetzea da, eta ahal den heinean euren jabekuntza prozesua indartzea. Aldi berean, Andoingo herriarekin eta herritarrekin dauzkaten harremanak sendotzen lagundu nahi diegu; izan ere, normalki, oso egoera isolatuan bizi dira. Etorkinekin harreman gehiago lantzen dituzte, bertakoekin baino".

AUTODEFENTSA TAILERRA AZAROAN

Datorren ikasturtean ikastaro berria martxan jarriko dutela iragarri zuten.

Esti Mujika zinegotziak aipatu egitasmoetan parte hartzeko gonbidapena luzatu die Andoingo emakume guztiei.

INFORMAZIOA



Ikastaro horietan izena emateko edo informazio gehiago eskuratzeko, Andoingo Udaleko berdintasun arlora jo behar da:

- Urigain kultur etxea
- sbarrenetxea@andoain.eus
- 943 300 830 (Luzapena 397).

Proposamen berriak jasotzeko prest daudela erantsi zuten.

Urteotan gizonezkoen eta emakumezkoen berdintasun errealaren bidean, Andoingo Udalak hainbat ekimen jarri ditu abian. Berrienak dira, esaterik baterako, berdintasunaren batzordearen eraketa, berdintasun teknikari baten kontratazioa, edo-eta Jabekuntza Eskola.

Andoingo musikari gazteak Hernanin bakarleri lanetan



Hiru gazteak Joxe Mari Oartzabal konposatzailearekin eta Musika Bandako kide diren Imanol Iribarren eta Joxe Ramon Berrondorekin batera, kontzertua amaitu ostean.

Joan zen igande eguerdian bakarleri gisa bikain aritu ziren **Mirari Ucin**, **Joxe Ramon Berrondo** eta **Oier Parada** Andoingo musikari gazteak Hernaniko Musika Bandak joan den igandean eskaini zuten kontzertuan.

Jendez beterik zegoen Hernaniko udaletxe azpiko arkupeetan egin zen musika emanaldia, bakarleri gisa hamai-kazte aritu zelarik. Zortzi Hernanikoak, eta hiru Andoingoak. Parada saxofoi-jotzaileak *Baghira* (Ferrer Ferran) pieza jo zuen; instru-

mentu berarekin, Ucinek *La pequeña Czarda* (Pedro Iturralde) aukeratu zuen. Eta Joxe Ramon Berrondok, tronpetarekin, *Joxe Ramon* izenburua daraman abestia estreinatu zuen.

Azken abesti hori Joxe Mari Oartzabal konposatzaile andoaindarrak sortu berria du, tronpeta-jotzaile gaztea inspirazio iturri hartuta. Abesti horretan, **Roberto Pacheco** Hernaniko Musika Bandako zuzendariak **Joxe Mari Oartzabalen** eskuetan utzi zuen batuta.

Matrikulazio epea zabalduko dute laster Galardin



Galardi Udal Haur Eskolan 0-2 urte bitarteko haurren matrikulazio epea zabalduko dute laster, 2017/2018 ikasturterako. Aurtengo iraila eta abendua bitartean hasteko asmoa duen haurraren kasuan, gurasoek matrikulazio epea zabalik izango dute Basteron maiatzaren 22tik ekainaren 2ra.

2018ko urtarriletik aurrera hasiko diren haurrentzat, eta plaza librerik balego, azaroaren 27tik abenduaren

7ra zabalduko litzateke matrikulazio epe berria.

Matrikulazioa:

Bastero kulturgunea.
943 303 540.

Epea:

Maiatzak 22-Ekainak 2.
Ate irekiera egunak:
Maiatzak 22 eta 29.
16:30, 17:30.

Galardi:

Extremadura kalea, 6.
943 300 655.
www.andoain.eus

SANTAKRUTZAK 2017

Santa Krutz jaietako pintxo lehiaketa

Maiatzaren 3an amaitu ziren jaiak. Pintxo-pote moduko lehiaketa antolatu zuen jai batzordeak, ostegunaren bezperan egokitu zena. Bezeroak, beraz, jandako pintxo lehiaketarako zela bazekien. Eta

horrela ehunka herritar asmatu zen pintxoak dastatzera. Aurreikuspenak gainditu ziren, taberna batean baino gehiagotan pintxoak azkar batean amaitu zirelako.



Aurtengo pintxo irabazlea.

Erronka modukoa da tabernari batzuzentzat. Jaiarekin bat egiteko era beste batzuzentzat. Eta gehienentzat betiko bezeroari zerbait ezberdina eskaintzako aukera paregabea da. Hamabost tabernarik eman zuten izena pintxo lehiaketaren bosgarren edizioan, eta aurtengoa marka guztiak hautsi zirela esan daiteke. Partaidetzari dagokionez eta ekimenean parte hartu zuten herritarrei dagokionez, lehiaketarik arrakastatsuna izan da. Jaiak amaitzen ari baziren ere, lehiaketa irabazi zuten Basteroko kideek ospakizun ederra egiteko albiste jaso zuten. Zorionak!

ARGAZKIAK, BIDEOAK

Ehunka argazki eta hogeita bide ezberdin eskegita daude aiurri.eus webgunean. Jaiak gozoan hartzeko modua da.



Bastero.

V. PINTXO LEHIAKETA SANTAKRUTZAK 2017-05-03.

Aurtengo irabazlea:
2017 Bastero

2017ko parte hartzaileak:

Txalaka
Txitibar
Zeru
Amama Klaudia
Muga
Xaxi Metro
Txuri Beltz
Gaztelutxo
Txindoki
Irunberri
Traiñerum
Urkiola
Hiru jatetxea
Tokitxo
Bastero

Aurreko urteetako irabazleak:

2016 Hiru
2015 Bastero
2014 Traiñerum
2013 Urkiola

Aurtengo pintxo argakiak:
www.aiurri.eus



Txitibar.



Amama Klaudia.



Txuribeltz.

SANTAKRUTZAK 2017



Xaxi Metro.



Gaztelutxo.



Zeru.



Tokitxo.



Urkiola.



Txalaka.



Hiru.



Muga.



Txindoki.



Traiñerum.



Irunberri.



AIURRI

JAIEN
JARRAIPIEN
ZEHATZA
WEBGUNEAN



MUSIKAZUZENEAN.COM WEBGUNEAK SUSTATU DUEN EMANALDIA, AIURRI ASTEKARIAREN LANKIDETZAREKIN

Kantaldia Urnietan, Musika zuzenean egitasmoaren eskutik

Musikazuzenean.com webgunea aski ezaguna da euskal musikazaleen artean. Haren egitasmoaren arima Koldo Otamendi andoaindarra da. Urtean behin webguneari loturiko emanaldi akustikoa

antolatu ohi dute, eta aurtengoa maiatzaren 21ean izango da Urnietako Saroben. Hamabi kantari agertoki gainera igoko dira, batzuk aski ezagunak eta beste batzuk lehen urratsak ematen ari direnak.



IKER LAUROBA



NAHIA ZUBELDIA



MICE



ETXE

MAIATZAK 21, IGANDEA

MUSIKA ZUZENEAN JAIALDI AKUSTIKOA

Sarobe Arte Eszenikoen Gunea.
Urnietan.
19:00 - 21:15.

SARRERAK AURREZ SALGAI

Sarrerak, alde aurretik: 8 euro.
Egun berean: 10 euro.

Andoain: Irunberri taberna.
Urnietan: Xauxar taberna.
Urnietan: Sarobe Arte Eszenikoen Gunea.

Hernani: Goiz Argi taberna.

Sarrerak on-line salgai
<https://entradium.com/es/entradas/musikazuzenean-jaialdi-akustikoa>

ANTOLATZAILEA

Musikazuzenean

LAGUNTZAILEAK

Urnietako Udala
Sarobe Arte Eszeniko Gunea
Aiurri
Arrosa Sarea

Jarraian antolatzaileek musikari bakoitzaren inguruan egin duen aurkezpena. Jaialdira hurbiltzeko denarentzat gida modukoa da.

MICE

Miren Narbaiza ez da hasiberri bat gure musika eszenan, baina Mice bai. Napoka Iria bikoan eman zituen lehen urratsak, gerora musika egitasmo ezberdinetan aritzeko. Mice da bere proiekturik pertsonalena, bere-berea. Kantuak zerotik sortzen ditu, pedaleran, loop eta efektu ezberdinen bidez.

OLATZ SALVADOR

Skakeitan taldeko teklatu-jolea da Olatz Salvador. Bere taldean jorratzen dituen ska-rock eta mestizai giro festazaleak alde batera utzi, eta folk giroko kantuak eskainiko ditu, ahots goxoz.

ETXE

2004an hasi zen bakarlarik bezala kontzertu akustikoa ematen Etxe. Azken urteak lozorroan eman ditu. Orain, indarberrituta itzuli da agertokietara, "Bizi" diskoa besapean.

PELAX

Unai Pelayo donostiarra da Pelax. 2013ko azaroan hasi zen lehen bakarlarik emanaldiak eskaintzen, bere ahots gordin eta gitarra elektriko zikin batez baliaturik.

Kantautorea bada ere, rock arima da berea, eta kantuetan nabari dira bere eragin gitarzaleak.

NAHIA ZUBELDIA

Nahia Zubeldia ziburutarra zenbait musika-estilotan ibilia da. Egun, Unama (folk) eta Lumi (elektro pop) taldeetan jotzen du. Bakarlarik gisa ere jotzen du noizean behin, gitarra elektrikoaren eta efektu-pedalen laguntzaz. Benetako luxu bat gurean izatea.

IKER LAUROBA

Ibilbide luzeko musikaria da Iker Lauroba. Talde ezberdinetan aritzen da egun (Lauroba, Izaro, Charlie & The Colours...) baina denbora hartzen du bere kantuak sortu eta taularatzeko.

Bakarkako bigarren diskoa kaleratu berri du "Nire gotorlekutik" izenpean.

LEAR

Urnietako hiru neska gaztek osatzen dute Lear banda. Emanaldi gutxi eskaini dituzten arren, zer esana eman dute jada. Zuzenekoetan kantu ezagunen bertsioak jotzen dituzte nagusiki. Musikazuzenean jaialdi akustiko honetan, ordea, hirukoak berak sortutako bi kantu eskainiko dituzte.

TRISTAN MOURGUY

Tristan Mourguy Donibane Lohizune (Lapurdi) herriko musikari bakarlaria da. Euskarazko kantu egilea da, olerkiak edota bertsoak gitarraren laguntzaz abesten ditu. Folka, popa eta rocka uztartzen dute bere kantuetan. Urte hauetan guztietan bi disko kaleratu ditu.

INUN

Mikel Inunziaga da Inun. Zornotza (Bizkaia) herrian jaiotako musikariak bi disko kaleratu ditu, azkena, 2016 urteko "Da Nola" lana. Bertan, euskal poeten hitzak erabili ditu kantuak osatzeko, hala nola, Bernardo Atxaga, Jon Mirande eta Itxaro Bordaren olerkiak.

NIRE

Iban Zabalegi ezkututzen da Nire izenaren atzean. Lisabo talde oldarkorrenko bateria-jozailea izan zen bere garaian, eta egun, bestelako doinuetan sakontzen du gitarra akustikoa lagun, folk eta country giroetan sakonduz. BideHuts zigitupean disko bat kaleratu zuen 2015 urtean.

LIBE

Bere musika bidea talde ezberdinetan burutu du Libek. Neubat, Sorkun edota Izaki Gardenak taldeko kide izan da (eta da) urteak atzera. Libe izenpean disko bat kaleratu zuen 2014 urtean, banda bat izan zuelarik alboan. Emanaldi honetan bakarka ariko da, ordea, pianoa lagun bakar.

MARIA RIVERO

Maria Rivero musika proiektu ezberdinetan murgilduta dabil azken urte hauetan guztietan. Hutsa edota Siroka egitasmoak martxan ditu egun, eta bakarkako bidean ere badabil bere izenpean. Urnietako emanaldian bakarka ariko da, gitarra akustikoa lagun duela.

MAIATZAK 21
IGANDEA

musika
zuzenean.com

JAIALDI AKUSTIKOA

URNIETA / SAROBE ARTE ESZENIKO GUNEA / 19:00

MICE
OLATZ SALVADOR
ETXE
PELAX
IKER LAUROBA
LEAR
TRISTTAN MOURGUY
INUN
NIRE
MARIA RIVERO
LIBE
NAHIA ZUBELDIA

SARRERA
Aurrez 8€
Egun berean 10€

ANTOLATZAILEA

LAGUNTAILEAK





KIROL ALBISTEAK

"Garaipenek profesional izateko ametsa elikatzen dute"

Mikel Alonso urnietarra denboraldi aparta egiten ari da. Dagoeneko Lehendakari Txapelketako hiru proba irabazi ditu, eta lerrook irakurtzerako besteren bat lortuta izango du, agian, Bidasoako Itzu-

lian murgilduta egongo baita bete-betean. 3. denboraldia osatzen ari da profesioaletan, eta magisteritza ikasten. Oraingoz gurpilei ematen die lehenetsua, baina liburuak albo batera utzi gabe.

Nor da Mikel Alonso?

20 urteko mutil gazte bat. Ingeniaritza ikasten hasi nintzen, eta orain Magisteritzarekin ari naiz. Hirugarren urtea dut afizionatuetan. Lehen urtean debuta nahiko ona izan zen. Iturria eta Aristirekin egokitu nintzen, haiei lagundu eta haiekin ikasi. Bigarrena ez zen ona izan, erorketa asko izan baintuen, bederatzi denera. Alergiekin-eta arazo asko izan nituen. Aurten gustura ari naiz. Esango nuke egonkortu egin naizela afizionatuen mailan, beste pedal kolpe batekin nabil. Aurreko bi urteetan ez atzera ez aurrera ibili naiz. Dietista batekin nabil, deskantsua eta beste..., xehetasun horiek zaintzen ari naiz, eta nabaritu egin dut.

Ingeniaritzatik Magisteritzara egin duzu jauzi. Zergatik?

Matematiketan txukun nabilelako hasi nintzen Ingeniaritzan, baina hasi eta berehala jabetu nintzen ez zela niretzat. Betidanik irakaslea izateko gogoia izan dut, eta aurten gustura nago, entrenamenduen-eta konbinatzeko aukera daukat.

Hiru karrera irabazi dituzu: Urretxun, Markina eta Natxitua (Lehendakari Kopan). Ez dira gutxi!

Maila handitzeko helburua neukan. Denboraldia hasi besterik ez da egin, eta dagoeneko hiru garaipen izateak lasaitasuna ematen ditu. Txirrindulari esplosiboa naiz, talde txikitako esprintetan-eta ondo moldatzen dena. Klasiko zalea naiz, ibilbide luzeko txirrindularia baino. Lehenengo garaipena amorrus ospatu nuen, gaineratik zama astuna kendu izan banu bezala.

Urnietan bizikletan ibiltzen denak zure aita Xabi ezagutzen du. Zer da zuretzat zure aita?

Berari esker naiz txirrindularia. Txikitatik beti ikusi izan dut bizikletan, berari segika hasi nintzen, horrela zaletu nintzen. Alde onak eta txarrak ditu. Onen artean, aholkuak ematen dizkidala, une txarretan babesa, beti laguntzeko prest. Txarrean, zenbaitetan presioa sartzen didala, 'entrenamendu hau edo beste egin beharko zenuke', eta antzeko kontuak. Oso gustura nago berarekin. 17 urtera arte ezin izan



Mikel Alonso Urnietako txirrindularia.

nion irabazi, asko ibiltzen baita. Bera garaitzeko grina horrek eraman nau, dena den, egun naizen txirrindularia izatera. Bere erritmoari eusteko borroka horrek egin nau indartsuago.

Euskadi Fundazioan gustura?

Oso eskertua. Askok egin dute ni taldean egoteko. Oso eroso sentitzen naiz, batez ere Jorge Azanza kirol zuzendariarekin. Oso ondo zaintzen nau, konfiantza, eta lasaitasun handia ematen dit.

Hiru garaipen lortuta ezberdin ikusten al da profesional izateko erronka, edo ez?

Ez dut gehiegi pentsatzen profesional izango naizen edo ez. Izan nahi dut, noski, baina etorriko da etortzen dena. Gaur egun garrantzia handiagoa ematen diot txirrindularitzari, ikasteko denbora bada-goelako gerora ere. Halere, eguneroko plangintza garbi daukat: ikasketak goizez, eta arratsaldean entrenamendua. Momentuz ondo moldatzen ari naiz. Panorrama oso zaila dago txirrindularitzan, eta ikasketak ezin dira albo batera utzi. Tropel barruan dagoenak badaki profe-

sional izatea, eta hortik bizitzea zaila dela. Han eta hemen gauza polit asko entzuten da, baina gero... Ametsa hor dago, eta ametsak irauten duen bitartean, esperantzak eta lana egiteko grinak ere bai. Entrenamendu taldea ere pizgarri handia da. Eskualdeko ziklistak zortzi urte daromatxagu entrenatzen, eta gero afariak-eta egiten ditugu. Bere gauza onak ere baditu hainbeste lan saio egiteak.

Nor duzu gustuko txirrindulari? Eta gustuko mendatea?

Nire idoloa Valverde da, eta nire gustuko mendatea, Andazarrate, Asteasun. Azken aldian Urkizun, Tolosan ibiltzen naiz. Han egiten ditut serieak-eta. Espainiako selekzioarekin ibili naiz oraintxe Belgika aldean, eta han ikusi dut ikaragarri ibiltzen direla, errepidean askoz maltzurragoak direla. Erietxean bukatu nuen, baina han bizitakoaz asko ikasi dut; besteak beste askoz gehiago entrenatu behar dela. Euskal Herrian zelaian lasai antzean joaten gara. Belgika eta Holandan denak ero moduan abiatzen dira hasieratik, eta hortik zer ikasia badaukagula uste dut.

ITURRIAREN LESIOA



ITURRIAK ERRADIOBURUA HAUTSI DU

Zorigaitzak Mikel Iturria txirrindularia erasan du berriro. Denboraldiko une garrantzitsuetan, bere sasoi puntu onenetik gertu, eta gehien atsegin dituen probak gertu dituela, eroriko bat jasan zuen Madrilgo Itzulian, pasa den larunbatean. Biribilgune batean izan zen, eta urnietarra azkar jabetu zen ezker besoan bazuela zerbait. Erradiografia egin eta erradioburua hautsita duela baieztatu zen.

Euskadi Murias taldekoak astebete egin beharko du beso-euskarriarekin. Hasiera batean hurrengo aste hasieran kenduko diote. Bitartean arrabola egiten saiatuko da, baina noski, arrabola finkoan, ezin baitu ezker besoa erabili. Babesa kentzen diotenean, eta balaztei eragiterakoan, eta besoa heldulekuan jartzen duenean sentitzen duen minaren arabera, entrenatzen hasiko da berriro.

Asturiasko Itzulian lehen hamarren artean sailkatetik gertu aritu zen Iturria. Madrilgo Itzulian ere ondo sentitu zen, erori zen arte, eta Gaztela-Leongo Itzulia eta Route du Sud zituen begiz jota, maiatza bukaeran eta ekaina erdialdean. Gaztela-Leongo Itzulia korritzea baztertu egin du erabat. Osatze prozesua laburra bada ere, han orain arte zuen sasoi berreskuratzeko denbora nahikorik ez duela uste du. Beste kontu bat da Route du Sud. Ekainaren 15etik 18ra jokatu da. Hilabete luzea geratzen da oraindik, eta proba horretara bete-betean iritsi nahiko luke, lesioa azkar osatzen bada eta bizikletan lehenbailehen hasten bada. Hala ez balitz, azken aukera bat izanen luke Iturriak: Burgosko Itzulia abuztuan.



KIROL ALBISTEAK

Urnieta KE taldea Nazional mailara igotzeko play-offean

Garaipen handia Erreterian

Urnietako eskubaloien senior taldeak hauspo ikaragarria eman dion garaipen garrantzitsua lortu zuen larunbatean Erreterian. Ereintza etxeko taldea menderatu zuen 27-29, aurreko asteburuan Sestaon hartutako kolpea aitaren batean ahaztuz.

Ordiziak jokaturako hirurak irabazi ditu, eta lider sendo da sei punturekin. Lau punturekin daude Urnieta eta Ereintza, baina urnietarrak aurretik, euren arteko *average*-a urnietarren aldekoa delako. Bi punturekin dira Egia eta Sestao, eta momentuz punturik batu gabe Sopolako Ugeraga.

Urnietarrek oso gertu dute finalerdietako txartela, baina gaur-gaurkoz igoera faseko lider bukatzea dute xede. Ordizia eta Ugeraga menderatzen badituzte, lider izango dira, eta finalerdietan laugarren sailkatuaren aurka jokatu. Ordizia da hurrengo aurkaria, Urnietan. Gipuzkoako txapelkun izan ziren Goierrikoak, eta Urnietaren aurka jokaturako bi partidatan garaile izan ziren, baina gol pare bateko abantaila txikiarekin. Klubeko arduradunek herritarrei kiroldegira azaltzeko deia egin diete, partida erabakigarria delako 2. Nazional mailara igotzeko borrokan.



27-29 menderatu zuen Ereintza, eta Ordizia hartuko du etxean larunbat honetan arratsaldeko 19:00etan hasita.

Eskubaloien taldeak sailkapeneko bigarren postura egin du jauzi garaipenari esker

Larunbat honetan arratsaldeko 19:00etan Ordizia taldea hartuko du Urnietako kiroldegiak

LARUNBATEKO PARTIDAN SARIAK IKUSLENTZAT

UKE eskubaloien atsedendian kiroldegian bertan boletoak erosten dituzten guztien artean saski zozketatuko du. Boletoak euro batean jarriko dira salgai, kantxa nagusiko atearan ondoren. Aste osoan, porra antzeko bat ere egingo da. Partidako emaitza jarri beharko da, bi euroren truke, eta emaitza asmatzen duenak bazkaria edo afaria

irabaziko du Oianume jatetxean. 2 euro ordaindu beharko dira porra bakoitzeko, eta zerrendak Xauxar, Guria eta Kiroldegiko tabernan jarriko dituzte. Baita kiroldegiko kantxa nagusian ere, partidaren atarian. Asmatzailerik ez balego, zozketa egingo da parte hartzaile guztien artean. Bufandak eta beste ere salgai izanen dira, Egiaren aurkako giro bikaina errepikatuko asmoz.

ITURZAETAREN OMENEZKO PALA TXAPELKETA HERRIKOIA



Aurreko asteburuan abiatu zen Iturzaeta herri txapelketaren edizio berria Sorabillako pilotalekuan. Bigarren jardunaldia larunbat honetan hasiko da, goizeko 10:00etan. Neskak ere asteburuan jarriko dira martxan, 18:30ean hasita.

Andoaingo taldeak txangoa antolatu dio WNT enpresari



WNT enpresak profesional mailako emakumezko taldea babesten du.

WNT atzerriko enpresak bilkura egingo du datozen egunotan estatu mailan dituen langileekin, Urnietako K10 hotelean. Enpresa horrek emakumezko profesional mailako txirrindulari taldea babesten du, maiatzaren 17tik 21era Euskal Biran parte hartuko duena.

Enpresako langileen bilkurarako, Andoaingo Txirrindulari Eskolari bizikleta irteera antolatzeko eskatu diote. Gauzak horrela, larunbat honetan enpresako 50 lagunekin batera 100 kilometroko irteera egingo dute. 10:30ean Goikoplazatik irteera egingo da.

Urnieta KE hirugarren; Leizaran A laugarren

URNIETA 25-20 LEIZARAN A Finalurrekoetan biak finalerik kanpo geratu ondoren, Gipuzkoako txapelketako 3-4. postua bi kluberen artean joko

tu zuten. Urnietarrak defentsa lanean serio aritu ziren eta Andoaingoei aurre egitea kostatu egin zitzaizkien. Kontrolpen izan zuten partida UKEkoek.

Palan 2-0 irabazi, eskuz binaka 1-2 galdu



Andoaingo herriak palaz eta eskuz ekin zion iaz Gipuzkoako Herriarteakoari. Palaz: Andoaingo 35-31 Erreterian Andoaingo 40-18 Erreterian

Eskuz binaka: Andoaingo 11-22 Ataun Andoaingo 2-22 Ataun Andoaingo 8-22 Ataun Bigarren itzulua, asteburu honetan.

Ganbara play-offetik gertu

Ganbara 75-74 Mundarro Bosgarren sailkatuta, azken partidaren play-offa zizurta dezake saskiko lehen taldeak.

Asteburuko partida: Añorga-Ganbara SenM 16:00 Bentaberri. Maiatzak 13, larunbata.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larremendi
Kultur Bazkaria

INISTORRI

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritzan

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerrri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINGO UDALA

Urrietako

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 36 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.eus. Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.eus
Publizitatea:
Fernanda Irazu. publikitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus. Tel.: 943 300 732

Banatzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

MAIATZAREN 11TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Zinema

Andoain, Bastero

- Un italiano en Noruega
Lar, 13. 19:30-22:00.
Ig, 14. 19:30.
Astl, 15. 19:30-22:00.
Datorren asteburuan:
El círculo, Los Superheroes.

Urnietan, Sarobe

- Ozzy
16:00, 18:30.
Maiatzak 14, igandea.

Literatura

Andoain

- 111 Akademia Saria, sari banaketa ekitaldia. Aurtengo irabazlea **Kirmen Uribe** izango da.
19:30 Bastero.
Maiatzak 11, osteguna.

Ikuskizunak

Andoain, Bastero

- Pupu eta Lore.
17:00 Auditorioa.
Maiatzak 13, larunbata.

Urnietan

- Pirritx, Porrotx eta Marimotsen emanaldia, Egape ikastolako jolastoki estalian.
Urnietan salgai:
Xauxar, Bikain.
Andoainen salgai:
Aiurri, Ernaitza.
17:30 Egape. 7 euro.
Maiatzak 26, ostirala.

Musika

Andoain

- Kaskezur, Rukula, Txost!
22:30 Gaztetxea. 6 euro.
Maiatzak 13, larunbata.

Urnietan

- Musikazuzenean emanaldia, hainbat kantarirekin.
19:00 Sarobe. 8/10 euro.
Maiatzak 21, igandea.

Antzerkia

Andoain, Bastero

- Francoren bilobari gutuna.
21:30 Auditorioa.
Maiatzak 12, ostirala.

Ospakizuna

Urnietan

- San Isidro ospakizuna
11:00 Meza, bertso saioa
Lekaion eta segidan
bazkaria Oianumen.
Maiatzak 15, astelehena.

Festak

Urnietan

- Gazte Festak Urnietan, asteburu osoko ospakizunak.
Maiatzak 26, 27 eta 28.

Argazki-rallya

Urnietan, Lekaio

- Gazte eta helduen mailakoa.
09:30-10:00 Izen-ematea.
Maiatzak 27, larunbata.

Deialdiak

Urnietan

- Egape ikastolaren 50. urteurreneko afaria. Aldez aurretik izena eman eta ordaindu behar da, kontu korrontean dirua sartuz.
Izena emateko epea:
Maiatzak 17, asteazkena.
Urteurreneko afaria:
20:30. Oianume jatetxea.
Ekainak 2, ostirala.

Andoain

- Herri galdeketa egin ahal izateko sinadurak biltzen ari dira **Andoain Esan** ekime-nekoak.
Bulegoa:
Kaleberria, 1. Andoain.
11:00-13:00 / 17:00-20:00.

Farmaziak

Andoain

- Zatarain.
Gauetz: Etxebeste (Hernani).
Maiatzak 13-14.

Urnietan

- Etxebeste
Elkano 9, behea (Hernani).
Maiatzak 13-14.

Erakusketa

Andoain

- Joserra Elorza "Minus" margo erakusketa.
Bastero, erakusketa gela.
Ekainaren 3ra arte zabalik.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Paulek 2 urte bete zituen maiatzaren 7an. Hilarren 14an aitona **Angelek** urteak beteko ditu. Muxu potoloak!

URNIETA

ZORIONAK



Norak hamar urte bete ditu! Zorionak printzesa! Muxu potolo aita, ama eta Nagoreren partez!

URNIETA

ZORIONAK



Zorionak Gue-rrau! Ondo ondo ospatu zure eguna. Muxuak etxeko eta baita Marceta Pau-en partez.

ANDOAIN

ZORIONAK



Ninak 8 urte bete zituen maiatzaren 11n. Etxeko txikia handitzen ari da. Muxu potoloa, etxeko partetik.

URNIETA



OSO ERRAZA DA eta doakoa.
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsappa: **619 163 537**

MERKATU TXIKIA

Haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko emakume euskaldu bat behar dugu, astelehenetik ostiralera, Urnietan. Interesatuak 670 855 310 telefono zenbakira deitu.

Gurasolagunen azken hitzordua, Ludotekan

Bidaide izeneko egitasmoarekin, Gurasolagun ekimeneko partaideek hainbat jarduera burutu dituzte ikasurte osoan zehar. Beti ere euskara ardatz hartuta. Ikasurtea amaitzen ari da, eta

maiatzaren 26rako Xaboi tailerra antolatu dute, haur eta gurasoentzat. Azken jarduera denez, zozketa egingo dute parte hartzaileen artean. Sariak izango dira, berraz, bertaratzaren direnentzat.

Egape ikastolaren afaria datorren ekainaren 2an



Ikasurte berezia izaten ari da aurtengoa Urnietako ikastolakoentzat.

Egape ikastolaren afaria datorren ekainaren 2an, Oianume jatetxean. 20:30ean hasiko da eta menua 35 eurokoa izango da: Urdaiazpikoa, foiea, ganbak, eguneko arrain freskoa, azpizuna, tarta eta izozkoa, kafea eta edariak. Antolatzaileek jakinarazi dutenez afari-hurbiltzen direnak hiru

taldetan banatuko dituzte: Langileak, gurasoak eta ikasle ohiak. Maiatzaren 17a baino lehen ordaindu behar da, kontu korrontean dirua ipiniz. Ordaintzerakoan izenabizenak eta taldea aipatu behar da, hots, gurasoa, ikaslea edota langilea.

Kontu korrontea:
ES17 30350148 1614 8003 2576

DATORREN AIURRI ASTEKARIA: MAIATZAK 18, OTEGUNA

BAZKARIA ETA OMENALDIA URNIETAKO SANTA KRUTZ ELKARTEAN

Urnietako Santa Krutz elkarteak, santuaren egunaren bueltan joan zen asteburuan antolatu zuen bazkarian, **Emilio Dominguez**, **Manuel Arteaga** eta **Isidro Salinas** omenendu zituen, bakoitzari plaka bana oparitu. **Xanti Gorrotxategi** eta **Xabier Iruretagoiena** elkarteko bazkideak aritu ziren sukaldari lanetan. Batzordekideek, **Joxe Martin Urretabizkaia** lehendakaria buru zutela, lan polita egin zuten.



Dominguez, Arteaga eta Salinas omenenduak plaka banarekin, eta haiekin batera Urretabizkaia lehendakaria eta Salinas aurtengo omenduaren emazte Rosa Elozegi.